

# TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN: UROLA KOSTA (Zarautz-Azpeitia) 2016/06/20

**Kokalekua:** Sanz Enea Kultur Etxea (Zarautz)

**Iraupena:** 2 ordu eta 30 minutu

## Parte hartzaileak

Izena	Udalerrria	Elkarte/Erakunde/... /
Ana de Benito	Zarautz	Udaletxea
Nekane Otaño	Beizama	Udaletxea
Xabier Txurruka	Zarautz	Udala
Paul Muñoa	Zarautz	Udaletxea
Igor Aldalur Zendoia	Donostia	Gipuzkoako Mendizale Federazioa
Mikarmen Arregi	Aizarnazabal	Udala
Begoña Rodriguez	Zarautz	Udala
Juan Mari Iraola	Zarautz	Zarauzko Kirol Elkartea ZKE
Aitor Korta Etxabe	Zarautz	Zinegotzia, EH Bildu
Mikel Goenaga Gubia	Zarautz	Zinegotzia, EH Bildu
JA Usandizaga	Zarautz	Partikularra
Iker Azpeitia	Zarautz	PSE-EE
M <sup>a</sup> Angeles Aranguren	Zarautz	Murkil

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Jesús M <sup>a</sup> Erquicia Olaciregui	Lurralde Antolakuntza eta Planguintza Zerbitzuko arduraduna
José Ramón Varela Balenciaga	Gipuzkoako Lurralde Antolakuntzako Arduraduna

## Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Agirre Such	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru
Ainhua Lopez Eiguren	Inguru

## Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Jesús M<sup>a</sup> Erquicia Olaciregui, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariak eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitarteko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-partte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerrerako proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

### LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde

Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jonek.

### **Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.**

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Jonek, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
  - o Paisaia
  - o Ingurune fisikoaren antolamendua
  - o Klima aldaketa
  - o Babestutako Naturguneak
  - o Korredore ekologikoak
  - o Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
  - o Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
  - o Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
  - o Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
  - o Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
  - o Hiriz hazkundera
  - o Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
  - o Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
  - o Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
  - o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
  - o Bide-mugikortasuna
  - o Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
  - o Talde mugikortasun multimodala
  - o Eredu logistikoa
  - o Ura

- Energia
- Zeharkako alderdiak
  - Genero ikuspegia, osasuna, euskara
  - Lurraldeen arteko harremana
  - Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Anak:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Landutako ideiak post it-etan idatzi beharko dira (post it bat, ideia bat). Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

### Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

#### 1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

##### 1.1. Paisaia

1.1.1. Landa paisaiaren desnaturalizazioa vs baserri ekintza. Nola bilatu bien arteko eredu orekatu bat: natura babestu baserrigintzaren bitartez eta baserrigintzatik onurak atera. Explotazioa mistoa: baserrigintza eta ekoaisia

1.1.2. Paisaia orokorrean babestea, eta ez soilik katalogatutako guneeak

1.1.3. Mendi lerroak, basoak. Modu orokorrean irizpideak, erreferenteak ez desagertzeko.

1.1.4. Paisaiak babestu, hazkunderari mugak jarritz: Euskal herri mailako paisaia erreferenteak LAGen bitartez babestu eta herri mailakoak Plan orokor edo herriko katalogoen bitartez.

##### 1.2. Babestutako naturguneak

1.2.1. Araudia argitu eta malgutu, babestutako naturguneen eta inguruko lurren arteko trantsizio ez dadin bortitza izan eta jarraipen progresibo bat egon dadin.

- 1.3. Ingurune fisikoaren antolamendua
  - 1.3.1. “Lurzoru urbanizaezina” izendapena aldatu, landa-lurra urbanizaezina baino askoz gehiago baita.
  - 1.3.2. LAGaren irizpide orokorra izan dadila, lehen sektorea, landa lurreko jarduera nagusia izan dadila
  - 1.3.3. Lehen sektorearen parte hartzea gehiago sustatu beharko litzateke berrikuspen honetan
- 1.4. Orokorra
  - 1.4.1. Arazo nagusiak: itsasoaren altuera igotzea, uholde arriskua, baserriarren munduaren gainbehera.
2. Landa-ingurunea
  - 2.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
    - 2.1.1. Jarduera osagarriak baimentzea (ostalaritza, ostatua, aisialdia...) bertan bizi denari
    - 2.1.2. Arrantzari arreta jarri enplegua mantentzeko
    - 2.1.3. Laguntzak ematea baserriarrei, baina dependentzia sortu gabe. Adibidez Suitzako kasua, mendiak garbitzeko, paisaia mantentzeko, dirua ematen die Gobernuak baserriarrei.
    - 2.1.4. Arazoa / erronka. Nekazaritza eredua finkatu (agroekologia, elikadura subiranotasuna, merkaturatze aukerak...)
  - 2.2. Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
    - 2.2.1. Arazoa: landa luraren presio urbanistiko handia (3. sektoreko erabilerak, herri onurako izendapenak, 2. etxebizitza...)
    - 2.2.2. Jasangarritasun ekonomikoa eman baserri munduari, beraiekin elkarlanean, jarduera osagarriak baimenduz (baserrien exodoa ekiditeko).
    - 2.2.3. Ustiaketa bideragarriak bermatu.
3. Hirigunea.
  - 3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza
    - 3.1.1. Auzoetan etxebizitzaz gain merkataritza eta bestelako erabilerak (kirola, kultura, bulegoak) aurreikustea (ez sustatu erabileren monokultiboa). Trinkotasuna lortzeko erabilerak uztartu behar dira.
    - 3.1.2. Laguntzak eta erraztasunak eman etxeak birgaitzeko. Lehentasuna eman birgaitzeari, ez eraikin berriak egiteari.
    - 3.1.3. Birgaitu eta trinkotu herriguneak, ez lurraldean zabaldu
    - 3.1.4. Hiri luraren birgaitzea eta berrerabiltzea sustatu, artifizializazio berrietara jo aurretik
  - 3.2. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
    - 3.2.1. Burokrazia gutxiago eta erraztasun gehiago jarduera berriak jartzeko (lizentzien tramitazioan...)

- 3.2.2. Erronka: nola egin Zarautz erakargarria 2. sektorea, turismoa eta 1. sektorea mantentzeko? LAGek jarduera ekonomikoen banaketa egiten duite lurraldean eta Zarautz 2. sektore gabe izendatzen duite. Baina herri mailan, nola bermatu herriaren garapena?
- 3.2.3. LAGak herri mailako sektoreen arteko oreka bilatu dezatela.
- 3.3. Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
  - 3.3.1. Alokairua sustatu (diru-laguntzen bitartez...)
  - 3.3.2. Errolda kontutan hartu herrikoei laguntzeko. Kanpotik jende asko dator bigarren etxebizitza bila eta herrikoek alde egin behar duite, ezin dutelako etxebizitza bat eskuratu. Neurriak hartu hau ekiditeko.
  - 3.3.3. Jendea erakartzeko baliabideak aurreikusi eta sustatu (aparkalekuak, alojamenduak...)
  - 3.3.4. Alojamentu / baliabide turistiko ezberdinak egoki arautu. Herri batetik bestera kontzeptuak oso ezberdin interpretatzen dira gaur egun eta hau ekidin behar da.
- 3.4. Mugako herriak
  - 3.4.1. Kasu batzuetan beharrezkoa ikusten da. Batez ere intereseko eremu batzuk pentsatu beharko lirateke, herri batek behar duena, baina hurbil nahi ez duena, aldameneko beste herriarekiko muga ez jartzeko.
  - 3.4.2. Muga eremuak finkatu beharko ziren, non edozer gauza ez litzatekeen onartuko
- 4. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
  - 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
    - 4.1.1. Bizikleta bideak. Herriak lotzeko azpiegiturak egin, ez bakarrik herri barnekoak
  - 4.2. Talde mugikortasun multimodala
    - 4.2.1. Enpresen garraioa. Enpresa handiak herrietatik kanpo egiten dira eta kotxearen erabilera sustatzen duite. Enpresak behartu egin beharko lirateke alternatibak eskaintzera (autobus zerbitzua, bizikleten aparkalekua...)
    - 4.2.2. Barnera begira: garraio publiko lokala, komarken arteko lotura bermatzen duena eta merkea bultzatu behar da
  - 4.3. Bide-mugikortasuna
    - 4.3.1. Garraioa azpiegiturak: lurralde barneko (EAE) garraioak sustatzea. Adibidez, Bilbotik Santanderrera ez da bidesaririk ordaindu behar, baina bai EAE barnean ibiltzeko.
    - 4.3.2. Garraio azpiegiturak: ardatz handiez gain, "lotura txikiak" sustatzea, hau da, lotura sozial eta kulturalak, gertuko harremanak... kontutan hartuta
  - 4.4. Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
    - 4.4.1. Trenaren prestazioak hobetu, barne komunikazioa bultzatuz eskualdeak egituratzeko.

4.4.2. Kanpora begirako komunikazioak: aireportuak, portua, AHT... Kostu ekonomikoa eta eragin soziala begiratu behar dira plangintza egiterakoan.

#### 4.5. Energia

4.5.1. Pelleten erabilera, Beizaman, Ispasterren. Tokian tokiko energia sorkuntza sustatu behar da, tokiko errekurtsuak erabiliz.

#### 4.6. Ura

4.6.1. Uraren kudeaketa hobetzea integritasunez (ubideratzeak, uholdeak, ur sarearen galerak, saneamendua...)

### 5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea

#### 5.1. Genero ikuspegia, Osasuna, Euskara

5.1.1. Hazkunde orekatu lortu behar da integrazio aldera. Kasu batzuetan herrien populazioa bikoiztu, hirukoiztu egiten da eta hazkunde honen ondorioz, bertako jendartea gaituta geratzen da, nortasuna eta hizkuntza galduz.

5.1.2. Sail guztien arteko zeharkakotasuna etxe barruan ere lantzea.

#### 5.2. Parte hartzea eta Gobernantza

5.2.1. Parte hartzea sustatzeko sistema anitzak erabili behar dira gaiaren arabera (formula berdinak ez du balio denerako). Talde heterogeneoak bilatu behar dira, herritar eta adituz osatuak, informazio eta aholkularitza emateko.

#### 5.3. Klima aldaketa

5.3.1. Tokian tokiko kontsumo eredua sustatu (energia, elikagaiak, erropak...), km 0.